

Guk, Sarako herritarrok, gutun honen bidez gure gaitzidura eta kezka sakona adierazi nahi ditugu, gure herrian, behin eta berriz gertatu diren indarkeria, larderia, mehatxu eta solas diskriminatzaileei buruz.

Joan den abenduaren 31n, Sarako Herriko Etxeko edantegian, denentzat elkargune, besta eta segurtasun gune izan beharko lukeen ostatuan, gertakari biziki larriak iragan ziren.

Herritar batek talde-eraso biziki bortitza pairatu zuen. Dirudienez, biktima inguratu, mugiezin utzi, hainbat aldiz jo, iraindu eta umiliatu zuten, eta belarritakoak ere bortizki kendu.

Erasoaldian zehar, irainak, solas homofoboak eta umiliagarriak ere erran zitzaizkion dirudienez.

Biktima medikuarengana joan behar izan zen bere zauriak egiaztat emateko eta jendarmeriara joan zen salaketa egitera.

Eskuarteetan ditugun elementuak kontuan harturik, gertakarien larritasuna azpimarratzekoa da.

Eraso hau gertatu baino minutu batzuk lehenago, beste pertsona batzuek hitzezko erasoak eta larderia jasan zituzten, eta estatutik joatea erabaki zuten, egoera okertuko zenaren beldurrez. Hilabete batzuk lehenago ere, taberna berean, pertsona horietarik batzuek jada mehatxuak eta larderia erakutsi zituzten. Jakinarazi digute ere, Zugarramurdiko neska bat ahoz erasotua izan zela urtarilaren 1ean pertsona berdinegandik.

Bai, gaur egun, Saran, herritar batzuk ostatu publiko batetik joaten dira, erasotua izan daitezkenaren beldurrez.

Zoritxarrez, gertakari hauek ez dira bakanak. Hain zuzen, Senpere, Zugarramurdi, Urruña eta Berako gazteek ere arazoak izan baitituzte pertsona horiekin.

Badu momentu bat orain, giro kaltegarri bat ari dela pixkanaka nagusitzen: probokazioak, larderiak, irainak, mehatxuak, ahozko bortizkeria eta, batzuetan, indarkeria fisikoa; horiek oro esparru inposatu batean sartzen ez direnen kontra edo norbera izaten ausartzen direnen kontra.

Zeren eta, guk salatzen duguna ez baita bi pertsonen arteko desadostasun baten ondorioz sortu borroka, maiz ikusi dugun bezala, edo bi pertsona alkolizaturen artean sortutako liskar bat.

Gertakari horiek beldur- eta tentsio-giro bat sortu dute, eta egoera hori ez da inondik ere

bateragarria gure herriak defendatzen dituen baloreekin hala nola elkarbizitza, errespetua, duintasuna eta segurtasuna.

Ez dira gertakari bakanak, ez eta desadostasun soilak ere, baina aspalditik seinalatuak eta errepikatzen diren jokabide bortitzak baizik, bestearekiko errespeturik ez dutenak, baztertzea eta iraintzea dutena helburu:"ez duzu ni bezala pentsatzen / ez zara ni bezalakoa / edo ez zait gustatzen zure bizitzeko manera = jotzen zaitugu, kikiltzen, mehatxatzen, eta iraintzen. Hori da gertatzen ari dena.

Gure ustez, nork bere hautuak egin ditzake eta nahi duen maneran bizi, bere ingurukoei kalterik egiten ez dien artean.

Elkarbizitzarako gaitasuna zinez apaltzen ari da herrian eta intolerentziak du gaina hartzen. Egoera hori ez da bi talderen arteko liskarren ondorioa, ez. Saratar herritar batzuen jokabidea baizik ez da, adin eta jatorri sozial desberdinetako edonor erasotzen dutenak.

Bortizkeria, mehatxuak, hitz sexistak, homofoboak eta diskriminatzaileak, bai eta kalte materialak aspalditik jakinak dira.

Zoritxarrez gehiegitan isilpean atxikiak dira, beldurrez, akiduraz, erosotasunez, edo “denek elkar ezagutzen dugulako” edo pertsona ezagunen seme-alabak direlako.

Baina begiak hesteak ez du inoiz herri bat babestu.
Horrek zigorgabetasuna indartu besterik ez du egin.

Adibide gisa, nola posible ote da erasotzaileak biharamunean ostatura berriz joatea trago batzuk edatera, deus gertatu ez balitz bezala?

Nola posible ote da, joan den urtarrilaren 11n eta 18an, erasotzaileetarik batzuek hain lasaiki Sara ordezkatu izana errugbi partida ofizial batean?

Argiki adierazten dugu:

Errugbia ez da zelaira mugatzen. Lizentziadunek errugbiaren baloreak (aurkakoaren errespetua, diziplina, eredugarritasuna, bortizkeriaren kontrolatzea...) **edozein egoeratan aplikatu behar dituzte**, erran nahi baita kirol esparrutik kanpo ere.

Gertakari horiei begira, Sarako Izarra taldearen erreakzio ezak ondokoa adieraz lezake:

- **bortizkeriaren banalizazio onartezina,**
- **errubiaren hezkuntza-baloreen desegitea,**
- Sarako Izarra taldearen **irudia larriki kaltetzea,**

- **eredu izigarri txarra gazte lizentziatuei begira**, klubak jokabide- eta erantzukizun-eredu izan behar duelarik.

Bide beretik, ez dugu ulertzen Herriko Etxearen isiltasuna hamabi egunez eraso fisiko larria gertatu ondoan.

Herriko Etxeak, tindaketa gertatu eta bi egunetara idatzi du oharra. Ohar horretan, herrian gertatu andeatzeak aipatzen ditu nagusiki, bai eta sare sozialetan zabaltzen den mezua. Ez da hitz bat bera izan eraso bortitza jasan duen biktimarentzat, ez eta gertakari horren larritasunaz.

Herriko Etxearen partetik ihardokitze argirik eta agerikorik ez ukaiteak inpunitate-sentimendua areagotzen du, gizarte kohesioa ahultzen eta herritarrak arriskuan ematen.

Bortizkeria ez da iritzi bat.

Larderia ez da ohitura bat.

Inpunitatea ez da balore bat.

Gure aldarrikapenak

Herriko Etxeko Edantegiari zuzenduak, bai eta beste herriko ostatu guziei ere:

1. Berehalako kanporatze-neurriak

Argiki eta garbiki **ostatuan sartzera debekatzea**:

- larderia, mehatsua eta bortizkeria erakusten duen pertsona orori
 - azken gertakarietan parte hartu dutenei
- bai eta, kautelaz, **tokian berean ibiltzeko debekuak ere**.

2. «Zero tolerantzia» politika zorrotz baten plantan ezartzea

Galdegiten dugu «**zero tolerantzia**» **politika** berehala plantan ezarria izan dadin, eta argiki agerian emana ondoko jokamoldeei begira, hala nola:

- larderia edo mehatsuak
- liskarrak, izan hitzetan ala fisikoa
- jokamolde oldarkor edo probokatzaileak

Sarako Izarra errugbi taldeari zuzenduak

1. Barne diziiplina-prozedurak berehala irekitzea

Gertakari bortitz horretan **parte hartu dukeen lizentziadun** ororen kontra **diziiplina-prozedurak berehala** plantan ezartzea,

2. Lizentziadunak berehala eta kautelaz baztertzea

Galdegiten dugu gertakarietan inplikatuak izan daitezkeen lizentziadunek ez dezaten parte hartu:

- entrenamenduetan, partidoetan, txapelketetan, bidaietan
- zuzendaritza, ordezkaritza edota arduradun funtzioetan
- adin txikikoek edo klubaren irudi publiko jokoan ezartzen duten jardueretan

Neurri horiek baitezpadakoak dira beste lizentziadunen babesteko, taldearen kredibilitatea mantentzeko eta esparru sano eta segur baten bermatzeko.

3. Sarako Izarra klubaren posizionamendu ofiziala eta publikoa

Sarako Izarra klubaren partetik **posizionamendu argia, publikoa eta anbiguotasunik gabekoa** gadaltzen dugu, oroitaraziz:

- zelaitik kanpoko bortizkeria oro ez **dela inola ere bateragarria** errugbi klub bateko kide izatearekin,

- ez dela zigorgabetasuna justifika dezakeen kirol-estatusik, antzinatasunik edo tokiko osperik,
- klubak bere baloreei eta irudiari kalte egiten dien edozein jokabide **irmoki zigortzeko konpromisoa** hartzen duela.

Sarako Herriko Etxeari zuzenduak:

1. Gertatutakoaren inguruan dena argitua ez den bitartean, galdegiten dugu, **prebentzioz**, Herriko Etxeak **lankidetza, kontratu, zerbitzu, misio edo harreman oro berehala bertan behera uztea** gertakari bortitz horietan inplikatuak izan daitezkeen pertsonekin.

Neurri hori ez da gaztigu penal bat, baizik eta Herriko Etxeak herritarrekiko duen betebeharren errespetua, **interes orokorraren babesa** eta **zuhurtzia-printzipioa** bermatuko dituen neurria.

2. Herriko Etxearen partetik **posizionamendu argia, publikoa eta anbiguotasunik gabekoa** galdatzen dugu, bortizkeria forma oro fermuki kondenatuko duena, **inork ez duela faborezko tratamendurik ukanen bere harremanei esker** oroitaraziko duena, eta Herriko Etxeak ez duela onartuko pertsonen segurtasunaren kontrako inolako erasorik adieraziko duena

3. Prebentzio-neurri konkretuen plantan ezartzea

Herriko Etxeari galdegiten diogu lehenbailehen:

- herriaren izenean edo herriko elkarte batean ari den pertsona orok ukan behar dituen **jokabide-arauak formalki oroitaraztea**,
- **horrelako gertakariak ez errepikatzeko**, Herriko Etxeak beharrezkotzat jotzen dituen edozein neurri..

4. Biktimen berehalako babesa

Galdegiten dugu biktimak argi eta garbi sustengatzea, ez dela inolako presiorik edo mendekurik onartuko bermatzea, eta lekukotasuna edo salaketa eman duten pertsonen egiazko laguntza eskaintzea. Ez dugu gehiago entzun nahi biktima dela erruduna, “zirikatuko zituen” eta beste entzunez.

ASKI DA! ASKI DA! ASKI DA
Bortizkeriari ez!

Isiltasunari ez!
Inpunitateari ez!

Adierazpen-askatasuna eta bizi demokratikoan parte hartzeko eskubideak bermaturik, herritarrek gutun hau zabaldu dute beren boza adierazteko eta entzuna izateko.

Gure biziak eta harreman sozialak ez ditu beldurrak manatuko. Nahi dugu pertsona oro beldurrik gabe bizi dadin herrian.

Gutun honek ez du helburutzat justizia agintaritza ordezkatzea, erantzukizun penal indibidualak aitzinetik jukatzea, ez eta hobengabetasun presuntzioa urratzea ere. Aipatuak diren gertakariak ezagutuak diren elementuetan oinarritzen dira, bai eta lekukotasunetan, bidean diren prozeduretan, eta interes orokorra, segurtasun publikoa eta pertsonen babesa segurtatzea du helburu.

Inor ez da izenez izendatua, eta erabilitako hitzen helburu bakarra herritarrek egin konstatazioa adieraztea da, bai eta zilegi den galdezkatze bat planteatzea eta prebentzio- eta kautelazko neurriak galdegitea ere.

Gutun hau idatzi dugunok argi eta garbi adierazten dugu ez dugula bat egiten difamazio, gorroto-adierazpen, mehatxu, andeatze edo bortizkeria mota ororekin. Izan ere, berresten dugu legezko eta neurrizko erantzun arduratsuak behar direla elkarbizitza iraunkorki herrian berriz ezartzeko.

Herritarrek aspertuak dira, eta tamalez, difamazio eta tindaketa ekintzak egoera horren ondorioak baizik ez dira.

Bakean bizi kolektiboa

Eposta: bakeanbizi@gmail.com